



Andoaingo industria gunean kokatutako gure enpresak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu pabiloi handi batean. Bertan, taberna eta sagardotegi zerbitzua ematen dugu, eta horretaz gain, erakusketak, azterketak, diskofestak eta beste hainbat ekintza antolatzen ditugu. Gure helburua Andoaingo eta inguruko herrietako bizilagunei jarduera anitzetan parte hartzeko aukera ematea da. Honela, kultura, aisialdia eta komunitatearen garapena sustatu nahi dugu.

Gazteak bereziki aktibatzeko helburuarekin sortu dugu proiektu hau. Geroz eta gehiago ikusten ditugulako gazteak etxean geratzen direla kalera atera beharrean, eta behar horri aurre egiteko espazio hau sortu dugu. Gure pabiloiak gazteen sozializazioa eta harremanak sustatzeko gune bat izatea nahi dugu. Era berean, lanpostuak sortzea dugu helburu, tokiko gazteei aukera berriak eskainiz eta Andoaingo ekonomia indartuz.

Badakigu lehiakideak ditugula, hala nola inguruko sagardotegiak, diskotekak eta erakusketak guneak, baina gure proiektuak “plus” bat eskaintzen du: sagardotegi eta diskofesta zerbitzuak. Hauek gure eskaintza bereizgarri bihurtzen dituzte. Adibidez, Donostiako diskoteka nagusien aldean, gure pabiloiak gertutasuna eta inklusibitatea eskaintzen ditu.

Astebururo, diskofestak antolatzen ditugu. DJ gonbidatuak ekartzen ditugu, eta musika-genero anitzak eskaintzen ditugu, hala nola rocka, reggaetona, technoa eta jazz. Horrek bezeroen aniztasuna bermatzen laguntzen digu, eta festa tematikoen bidez esperientzia bereziak sortzen ditugu. Eguneroko jardueretarako, erakusketak eta azokak antolatzen ditugu. Beste enpresei gure espazioa eskaintzen diegu beraien produktuak aurkezteko edo ezagutarazteko, eta alokairu kuotaren truke diru-sarrerak eurentzat izaten dira.

Pabiloia azterketak egiteko leku gisa ere erabiltzen dugu. Ikastetxeek eta erakundeek aukera dute gure instalazioak alokatzeko, hala nola HABE azterketak, First mailako azterketak edo Hautaproba egiteko. Zerbitzu honek erraztasun logistiko handiak eskaintzen ditu, instalazio handi eta egokitua eskuragarri izanik.

Azpiegitura berezi bat ere sortu dugu: ez edateko parking-a. Gure bezeroek alkoholeko proba bat egin behar dute kotxea atera aurretik, eta positibo emanez gero, ezin dute ibilgailua atera. Hala ere, deskontu bat eskaintzen diegu negatibo ematen duten gidariei, bezeroak pabiloian arduraz geratzera bultzatzeko.

Sagardotegi zerbitzua asteburuetan egiten dugu, diskofestekin bat eginez. Menu tradizional eta kalitatezko produktuak eskaintzen ditugu, baina sagardotegiak ospakizun bereziak egiteko aukera ere ematen du. Ezkontzak eta bestelako



ospakizunak antolatzen ditugu, eta menuaren prezioa %20 igotzen da ospakizun berezietan.

Gainera, gure enpresak jasangarritasunaren aldeko apustua egiten du. CO2 isurpenak minimizatzen ditugu, eta energia eraginkortasuna bultzatzen dugu. Bestalde, komunitatearekin konpromisoa dugu, kultura sustatuz eta Andoaingo ekonomia aberastuz.



Azkenik, gure proiektuaren helburua ez da soilik zerbitzu anitz eskaintzea; komunitate indartsuagoa eraiki nahi dugu, eta Andoaingo bizitza sozial eta ekonomikoa suspertzea dugu xede.